

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEKO TXOSTENA - 2021

> 2022ko otsaila

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatzen ditu hilero Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, lurralde horretako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera. Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da. Argitalpen honetako informazioa lortzeko, **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa ez-finantzarioek** aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenak erabili dira.

Hileroko txosten horien osagarri bezala, urteko txosten hau prestatzen da. Izan ere, enpresa horien BEZaren urteko aitortpenak ere oso erabilgarriak dira; aldagai nagusien urteko bilakaera zein izan den kalkulatzeko aukera emateaz gain, informazio estrukturalari buruzko oso informazio interesgarria ematen du. Dena den, ez da ahaztu behar lagin bat aztertzen ari garela, eta nahiz eta adierazgarritasun handia izan lagin horrek Gipuzkoako ekonomian, ezaugarri jakin batzuk dituela, eta ondorioz, datuak orokortzerakoan kontuz jokatu behar dela.

Urteko aitortpenetan jasotako informazioa hiru atal nagusitan banatuta dago:

1. **Sektorekako sailkapena.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aitortutako epigrafe nagusitik abiatuta, enpresak 20 jarduera talde nagusitan sailkatuta daude.
2. **Enpresen tamainaren arabeko sailkapena.** Horretarako, enpresek 2021ean izandako langile kopurua hartu dugu kontuan, eta 5 taldetan banatu ditugu.
3. **Eskualdeen arabeko sailkapena.** Enpresek aitortutako sozietate helbidearen udalerria kontuan hartuta, eskualdeen arabeko sailkapen bat egiten dugu, eta bertan Donostia beste eskualde bat gehiago da, probintziako hiriburua izateak ematen dizkion berezigarriengatik.

EZAUGARRI NAGUSIAK


➤ 2021ean Gipuzkoako enpresen salmentak %16,8 igo dira

2020an salmenta osoak %10,1 erori ondoren, pandemiak jardura ekonomikoan izan duen inpaktuaren ondorioz, 2021ean %16,8ko gorakadarekin berreskuratu dira. Hazkundera esanguratsua izan da, bai barruko salmentetan (+%15,8), eta baita esportazioetan ere (+%18,7).

1. taula. GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (urte arteko bariazio tasa)

	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak	Inportazioak
2006	7,1	6,6	8,4	11,9
2007	7,1	6,1	10,0	12,3
2008	0,0	-1,5	4,6	0,0
2009	-20,5	-20,2	-21,6	-37,4
2010	2,1	-4,6	21,6	28,4
2011	0,5	-5,0	12,8	11,0
2012	-5,1	-8,0	0,4	-8,7
2013	-3,6	-5,4	-0,5	-1,0
2014	3,3	3,3	3,2	1,2
2015	4,9	3,0	8,2	11,3
2016	0,4	1,7	-1,8	-5,6
2017	7,5	9,5	4,1	14,0
2018	6,6	5,8	8,0	10,5
2019	2,8	2,5	3,4	3,0
2020	-10,1	-9,1	-11,9	-13,5
2021	16,8	15,8	18,7	22,0

1. grafikoa – SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)




EZAUGARRI NAGUSIAK

➤ **Apur bat igo da esportazioek Gipuzkoako enpresen salmentetan duten garrantzia**

Nazioarteko merkataritzak 2021ean izan duen bilakaera onaren arrazoia, neurri handi batean, eskariaren susperraldi handia izan da. Eta hori gertatu da, pandemiarekin zerikusia duten murrizketa gutxiago egon delako, pizgarri ekonomikoko paketeen ondorioz eta oinarritzko produktuen prezioen igoeraren ondorioz.

Gipuzkoako enpresen kasuan, kontuan hartuta 2021ean kanpoko salmentek (+%18,7) barruko salmentek (+%15,8) baino portaera hobea izan dutela, esportazioek salmenta osoetan duten pisua %34,2tik %34,8ra igo da, eta, aldi berean, barruko salmenten pisua %65,8tik %65,2ra jaitsi da. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar 2008ko krisialdiaren aurreko aldietan, 2005-2006 urteetan, esportazioen pisua %25 ingurukoa zela; beraz, hamabost urteko epean kanpoko salmentek 10 puntu erlatibo irabazi dituzte.

2. grafikoa – Salmenta osoek 2020 eta 2021ean izandako banaketa

➤ **Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso handia da**


Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekiera maila oso altua du: salmenten 100 euro bakoitzeko 34,8 euro kanpoko merkatuetan bideratzen dira. Gipuzkoako enpresen esportazioen 3 helmuga nagusiak, hurrenkera horretan, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira; guztira esportazioen %35 baino gehiago dira. Baina horrek beste ondorio bat ere badu: Gipuzkoako enpresak gero eta sentiberagoak dira herrialde horien bilakaera ekonomikoarekiko.

Bestalde, Erresuma Batua EBtik irteteak esportazioen/inportazioen egitura aldatzea eragin du. 2021eko urtariletik aurrera, BEZaren aplikazio lurraldearen eta Erresuma Batuaren artean egindako eragiketak ez dira Europar Batasunaren barruko entrega/eskuraketa gisa kalifikatu, eta Europar Batasunetik kanpoko gainerako herrialdeetarako esportazio/inportazio gisa kalifikatu. Neurri batean, horren ondorioz, 2021ean, EBra egindako esportazioak %3,4 soilik igo dira, eta Europar Batasunetik kanpo egindakoak, berriz, %45,3.

Horren ondorioz, EBrako esportazioek pisua galdu dute: %63,4tik %55,2ra (8,2 puntu gutxiago). Bestalde, munduko gainerako lurraldeetara egindako esportazioak %44,8 izan ziren, eta iaz, berriz, %36,6.

EZAUGARRI NAGUSIAK


3. grafikoa – Esportazioek EBra eta munduko gainerako herrialdetara 2020 eta 2021ean izan duten banaketa



2021ean inportazioak %22,0 igo dira. Gipuzkoako enpresen inportazioak hornitzen dituzten herrialde nagusiak Frantzia, Alemania, Txina eta Italia dira. Lauren artean inportazio guztien erdia baino gehiago metatzen dute.

Kasu honetan, aztertutako bi eremuek esportazioen antzeko portaera erakusten dute, baina ez hain nabarmena Erresuma Batuak Gipuzkoako inportazioetan duen garrantzi txikiagoagatik: EBtik egindako erosketak EBtik kanpotik egindakoak baino gutxiago igo dira (+%17,6 eta +%36,3, hurrenez hurren). Horregatik, EBtik egindako inportazioen pisu erlatiboa 2,8 puntu jaitsi da, 2020ko %76,3tik egungo %73,6ra. Nolanahi ere, Gipuzkoako enpresen inportazioen ia 3/4 EBko herrialdeetatik datoz.

4. grafikoa - Inportazioek eremuen arabera 2020 eta 2021ean izan duten banaketa



Esportazioak (%+18,7) inportazioak (%+22,0) baino pixka bat gutxiago hazi dira, eta ondorioz, merkataritzako estaldura ratioa edo saldoa pixka bat jaitsi da: 2020an %221 zen, eta orain %215 da. Oso datu positiboa da, esportazioak inportazioak baino 2,15 aldiz handiagoak baitira. Kontuan izan behar dugu datu horiek txosten honetan aztertutako laginari dagozkiola; Gipuzkoako ekonomia osoa kontuan hartzen badugu, estaldura ratioa zertxobait txikiagoa da, %175 ingurukoa; hau da, esportazioak inportazioen ia bikoitza dira.

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA *


- **Sektoreen arteko banaketan industriak pisua irabazi du 2020aren aldean (+2,2 puntu); aldiz, galdu egin dute eraikuntzak (-1,3 puntu) eta zerbitzuek (-0,8 puntu)**

2021ean salmentak igo egin dira industrian (+% 21,6) eta zerbitzuetan (+% 14,4); eraikuntzan, ordea, -% 9,8 jaitsi dira. Horrela, ikus daitekeenez, covid-19aren osasun krisiaren ondorengo susperraldia oso desberdina izaten ari da jardura sektoreen arabera. Industria, eta, neurri txikiagoan, zerbitzuak, susperraldi ekonomikoaren eragile gisa jarduten ari diren bitartean, eraikuntzaren sektoreari egoera berrietara egokitzea kostatzen ari zaio.

Nolanahi ere, emaitza horiek tentu handiz interpretatu behar dira, txosten honetan aztertutako laginaren ezaugarriak kontuan hartuta. Orri-oineko oharrean adierazten den bezala, industria sektorearen gehiegizko ordezkartza dago.

Horrela, eta industria sektoreko salmenten hazkunde handiagoaren ondorioz, aldaketa txiki bat gertatu da sektoreen arteko banaketan. 2021ean, industria salmenten %54,8 da, eta aurreko urtean, berriz, %52,6 zen. Eraikuntzaren sektoreko partaidetza 2020ko %5,8tik %4,5era murriztu. Zerbitzuen sektoreak ere behera egin du, Gipuzkoako enpresen salmenta guztien %41,6tik %40,7ra.

5. grafikoa - Salmenta osoek sektoreen artean 2020 eta 2021ean izandako banaketa




* Aztertutako laginak bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, enpresa finantzarioak kanpo geratzen dira; eta bestetik, hilerio BEZaren aitorpena aurkezten duten enpresak bakarrik hartzen dira; hau da, nolabait zerbitzu sektoreak ordezkagarritasun txikiagoa du, eta enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturik laginean. Azkenean, bi faktore horien ondorioz, industriaren pisua benetakoa baino handiago da; eta alderantziz, zerbitzuena txikiagoa. Horrela, 2020ko EUSTATen kontu ekonomikoen arabera, Gipuzkoan industriak Barne Produktu Gordinaren %28,0 suposatzen zuen, eraikuntzak %6,2 eta zerbitzuek %65,2.

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ **Industria garrantzitsua izan arren, sektore maila xehatuago baten ikuspuntutik, merkataritzaren azpisektorea aipagarriena da, salmenta osoen %25,2 hartzen baitu**

Sektoreak 20 taldetan sailkatuta, agerian geratzen da merkataritzaren azpisektorea aipagarriena dela 2021ean izandako salmenta osoetan (kopuru osoaren %25,2); horren atzetik, tarte luze batera, beste hauek aurkitzen dira: makineria (%13,5), beste zerbitzu komertzialak (%7,6), oinarritzko metalgintza (%7,5), eta, azkenik, garraio-materiala (%7,4)

6. grafikoa - 2021ean salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




2020ko pisuarekiko aldaketa nagusiak honako hauek izan dira: pisu gehien irabazi duen adarra oinarritzko metalgintza izan da, 2,0 puntuko hazkundearekin (%5,5etik %7,5era pasa da), eta ondoren material elektrikoaren adarra, 0,9 puntuko hazkundearekin (%2,6tik %3,5era). Pisu erlatiboaren galera handiena eraikuntzan eman da (%5,8tik %4,5era pasa da, 2020an baino 1,3 puntu gutxiago).

2020arekiko bariazioari dagokionez, aztertutako 20 sektoreetatik 2tan bakarrik jaitsi dira salmentak: eraikuntza (-%9,8) eta nekazaritza eta abeltzaintza eta arrantza (-%9,5). Gainerako 18 adarretan salmentak igo egin dira 2020tik. %30etik gorako igoerekin nabarmentzen dira: oinarritzko metalgintza (+%57,1), material elektrikoa (+%56,6), kimika (+%37,2) eta papergintza eta grafikak (+%31,9).

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA


7. grafikoa - 2021ean salmenta osoen bariazio handienak eta txikienak izan dituzten adarrak (%)



➤ Industria adarrak dira nagusi Gipuzkoako enpresen esportazioetan

Gipuzkoako enpresen kanpo salmenten oinarria ekipo ondasunei lotutako industria adarrak dira: makineriari eta garraio-materialari dagokienez, esportazio guztien %22,8 eta %16,2 dira, hurrenez hurren; oinarrizko metalgintza %12,6 da, metalezko gaiak %8,3 eta merkataritza %7,6. Bost adar horien artean Gipuzkoako esportazio guztien %67,5a hartzen dute.

8. grafikoa - 2021ean esportazioen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

Adar esportatzaile horien artean, 2020. urtearekin alderatuta, pisu erlatibo gehien irabazi duena oinarritzko metalezkoa izan da: %9,5 izatetik %12,6 izatera igaro da, aurreko urtean baino %58,1 gehiago esportatu baitu. Esportazio gehien egiten dituen adarrak, makineriak, 0,5 puntu galdu ditu (%23,3tik %22,8ra igaro da), nahiz eta esportazioak %16,3 hazi diren 2020arekin konparatuta.

- **Garraio-materialaren adarrean salmenten %75,8 kanpoan egiten da, eta enpresen multzo osoaren batez bestekoa %34,8 da**

Esportazioek salmenta guztien aldean zer pisu hartzen duten begiraturik, ikus daiteke hainbat adarretan beren salmenten erdia baino gehiago kanpoan egiten dela.

9. grafikoa – 2021ean esportazioek salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)



Garraioko materialaren adarrean esan daiteke salmenta osoen hiru laurdenak baino zertxobait gehiago (%78,9) kanpoko merkatuetan egiten direla; aldiz, enpresen multzo osoaren batez bestekoa %34,8 da. Beste 6 adarrek ere erdia baino gehiago kanpoan saltzen dute: ehungintza eta oinetakogintza (%68,6), oinarritzko metalgintza (%58,9), makineria (%58,5), metalezko gaiak (%55,4), metalgintzakoa ez den industria (%50,7) eta metalezko eraikuntzak (%50,2).


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA *

➤ **Enpresa txiki eta ertainek pisu oso handia dute Gipuzkoako ekonomian: salmenta osoen %66,7 egiten baitituzte**

Ezaguna da Gipuzkoako enpresa sarearen barruan enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. 250 langile baino gutxiago dutenak halakotzat hartuta, salmentetan duten garrantzi kuantitatiboa handia da, salmenta horien %66,7 egiten baitituzte; hau da, salmentetako 100 euro bakoitzeko, ia-ia 67 euro enpresa horiexek saltzen dituzte.

Bestetik, enpresa handienek (250 langile edo gehiago) salmenta osoen %33,3 egiten dute.

10. grafikoa - Enpresa taldeak 2021ean salmenta guztien aldean izandako pisu erlatiboarekiko (%)



2020. urtearekin alderatuta, salmenta osoak %15 eta %20 bitartean igo dira talde guztietan. Gainera, antzeko igoerak izan dira barruko salmentetan eta baita esportazioetan ere.

* Aztertutako laginak duen ezaugarri nagusietako bat da, BEZren aitortpena hilerro aurkezten duten enpresak hartzen direla; hau da, nolabait enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkatuta laginean. Beraz, errealitatean Gipuzkoan enpresa txikien dute pisua hemen erakusten dena baino handiagoa izango da.


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Enpresa handienek profil esportatzaile argiagoa dute

2021eko datuen arabera, argi eta garbi geratzen da enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan kanpoan gehiago saltzen dela. Hori horrela, 250 langile edo gehiagoko enpresek beren salmenta guztien %45,9 saltzen dute kanpoko merkatuetan; enpresa txikienetan, aldiz, %14,1 da. Portzentaje hori argi eta garbi igotzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian

Gero eta globalizatuago eta interkonektatuago dagoen mundu honetan, internazionalizazioaren erronka ezinbesteko faktorea da enpresak mantentzeko, indartzeko eta hazteko. Azken urteotan, teknologiari esker (komunikazioak, merkatuen prospekzioa, nazioarteko marketina) kostu mota guztiak asko murriztu dira, eta horrek indartu egin du edozein enpresa, txikia izanda ere, nazioartekotu daitekeenaren ideia. Hala ere, datuek erakusten dute enpresen dimentsioak eta tamainak ere garrantzia dutela.

11. grafikoa – 2021ean esportazioen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA


➤ Goierrik du pisu erlatiborik handiena salmenta osoetan

Goierrik lurraldeko salmenta guztien %17,5 metatzen du, eta, 2020arekin alderatuta, 0,2 puntu irabazi ditu. Izan ere, salmenta osoak +%18,3 igo dira, igoera orokorrak izandako +%16,8 baino pixka bat gehiago, eta beste eskualde batzuetako igoera baino gehiago.

Donostia bigarren postuan dago salmenta osoei dagokienez: guztien %16,4, eta 2020an baino 1,5 puntu gutxiago; izan ere, salmenta osoak +%6,8 igo dira, hazkunde orokorra baino 10 puntu gutxiago. Salmenta osoen pisu erlatiboari dagokionez, hirugarren lekuan daude egoitza Debagoienan duten enpresak, lurraldeko salmenten %13,5 metatzen baitute; eta laugarren lekuan Donostialdea dago, salmenta guztien %12,5ekin.

2020. urtearekin alderatuta, salmenta osoen hazkunderik handiena Tolosaldean izan da (+%31,0), batez ere barruko salmenten igoeraren ondorioz (+%39,6). Bestalde, salmentetan hazkunde txikiena izan duten eskualdeak Bidasoa Behea (+%6,6) eta Donostia (+%6,8) izan dira.

12. grafikoa - Salmenta osoen pisu erlatiboa eskualdeen arabera 2021ean (%)




ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Goierriko enpresek beren salmenten erdia baino gehiago kanpoko merkatuetan saltzen dituzte

Oro har, esan daiteke Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso altua dela; eta batez ere Goierriko eta Debagoienako enpresen kasuan. Horrela, Goierriko enpresek kanpoko merkatuetan beren salmenta osoen %55,8 saltzen dute, eta Debagoienakoak %48,4.

Aitzitik, Donostian esportazioak nekez salmenta osoen %9,6 dira, hau da, lurraldeko %34,8ko batez bestekotik oso urruti dago; horren arrazoia da eraikuntzak eta hirugarren sektoreak (merkataritza, zerbitzuak...) hiriburuan duen pisu handia.

13. grafikoa - Eskualdeen arabera sailkapena – 2021ean esportazioek salmenta osoen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan jasotako datuen taulak populazio konstantearen arabera datuei dagozkie. Hau da, bariazio tasak bi urtez jarraian zergaldi berean aitortzen duten enpresen gainean kalkulatu dira. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte

URTEARTEKO BARIAZIOEN LABURPENA

1 Taula. Salmenta osoak: barrukoak eta kanpokoak.
(urtearteko bariazio tasak,%)

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9
2021	16,8	15,8	18,7



> Urteko txostena - 2021

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

**2 Taula. Salmenta osoak produkzio sektoreen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	13,1	7,7	-1,6
2007	7,5	11,8	5,6
2008	1,8	10,5	-4,8
2009	-25,1	-11,1	-14,8
2010	6,0	-21,8	2,1
2011	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,4	0,9	3,4
2015	5,4	-7,5	6,3
2016	-0,7	-5,4	2,9
2017	6,3	5,1	9,6
2018	6,5	0,7	7,4
2019	2,6	-2,0	4,0
2020	-12,9	-14,7	-5,5
2021	21,6	-9,8	14,4

**3 Taula. Esportazioak eta inportazioak ingurune geografikoen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2021	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3

4 Taula – SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA - (urtearteko bariazio tasak,%)

Taldea	Izena	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
		2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	
	Guztira	100,0	100,0	16,8	100,0	100,0	15,8	100,0	100,0	18,7	34,8
01	Nekazaritza, abeltzaintza arrantza	0,0	0,0	-9,5	0,0	0,0	-13,5	0,0	0,0	131,2	6,6
02	Energia eta ura	0,5	0,5	23,7	0,7	0,7	23,4	0,2	0,2	0,0	14,2
03	Oinarrizko metalgintza	5,5	7,5	57,1	3,5	4,7	55,9	9,5	12,6	58,1	58,9
04	Metalgintzakoa ez den industria	1,2	1,3	21,9	0,9	1,0	19,3	1,8	1,8	24,4	50,7
05	Kimika	1,6	1,9	37,2	1,4	1,6	34,7	2,0	2,4	40,3	43,7
06	Metalezko eraikuntzak	4,8	5,0	21,0	3,5	3,8	24,6	7,3	7,2	17,7	50,2
07	Metalezko gaiak	5,0	5,2	21,3	3,3	3,5	22,9	8,2	8,3	20,0	55,4
08	Makineria	13,7	13,5	15,2	8,8	8,6	13,8	23,3	22,8	16,3	58,5
09	Material elektrikoa	2,6	3,5	56,6	1,8	2,8	78,4	4,2	5,0	38,7	48,7
10	Garraio materiala	8,5	7,4	1,6	2,8	2,8	16,0	19,7	16,2	-2,2	75,8
11	Elikagaiak	3,8	3,5	5,5	4,6	4,2	5,5	2,3	2,0	4,5	20,0
12	Ehungintza eta oinetakogintza	0,0	0,0	11,8	0,0	0,0	40,1	0,0	0,0	2,3	68,6
13	Zurgintza eta altzarigintza	0,5	0,5	19,4	0,5	0,6	29,8	0,6	0,5	0,4	30,4
14	Papergintza eta grafikak	3,1	3,4	31,9	2,8	3,3	34,8	3,5	3,8	27,1	38,0
15	Kautxua eta plastikoa	1,6	1,5	11,1	1,3	1,3	17,9	2,2	1,9	3,4	43,9
16	Eraikuntza	5,8	4,5	-9,8	8,8	6,8	-10,5	0,1	0,2	93,2	1,4
17	Merkataritza	25,7	25,2	14,6	35,1	34,7	14,5	7,8	7,6	15,6	10,4
18	Garraioa eta komunikazioak	7,1	7,0	15,1	7,9	7,6	11,8	5,6	5,8	22,8	28,8
19	Beste zerbitzu komertzialak	7,8	7,6	13,0	11,0	10,8	13,2	1,8	1,7	13,0	7,7
20	Beste zerbitzu ez komertzialak	0,8	0,8	17,6	1,2	1,2	17,0	0,0	0,0	172,1	1,3

5 Taula – ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)

TAMAINA	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	
Guztira	100,0	100,0	16,8	100,0	100,0	15,8	100,0	100,0	18,7	34,8
25 langile baino gutxiago	16,1	16,4	19,4	21,0	21,6	19,4	6,6	6,7	19,7	14,1
25 - 49	14,4	14,8	20,2	16,1	16,6	19,8	11,1	11,4	21,5	26,7
50 - 99	11,5	11,6	18,1	10,7	10,7	15,9	12,9	13,2	21,6	39,7
100 - 249	24,2	23,8	15,3	24,2	23,4	12,2	24,2	24,7	21,2	35,9
>=250	33,9	33,3	14,8	28,1	27,6	14,0	45,2	44,0	15,7	45,9

6 Taula – ESKULADEEN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)

ESKULADEAK	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	2020ko pisua	2021eko pisua	Bar. 2021/2020	
Guztira	100,0	100,0	16,8	100,0	100,0	15,8	100,0	100,0	18,7	34,8
Bidasoa Behea	11,8	10,7	6,6	15,3	13,9	5,2	4,9	4,8	15,2	15,5
Debabarrena	6,2	6,9	29,2	5,3	6,2	34,6	7,9	8,2	22,2	41,2
Debagoena	12,6	13,5	25,2	9,5	10,7	30,0	18,5	18,8	20,5	48,4
Donostialdea	12,6	12,5	15,6	13,9	14,0	16,2	10,0	9,6	13,8	26,8
Goierra	17,2	17,5	18,3	11,3	11,8	21,3	28,7	28,0	16,1	55,8
Oarsoaldea	6,3	6,1	13,2	6,1	5,8	10,0	6,5	6,5	19,2	37,4
Donostia	17,9	16,4	6,8	25,2	22,6	4,1	3,8	4,5	40,5	9,6
Tolosaldea	7,2	8,1	31,0	6,1	7,3	39,6	9,4	9,5	20,2	40,8
Urola Kosta	8,2	8,4	20,0	7,2	7,6	22,6	10,2	10,0	16,6	41,4